

## SENAR-EMAZTEAK-IV

### *Anton Erkorekak Bermeon bildutako ipuin zaharra*

Aldi hartan *Morondo kalean* edo beste izen batekin *Bedar kale* horretan, bizi ziren senar-emazte batzuk, eta denbora haretan ohitura zen legez euren ezizenak zituen, honetan <<Tinta-azal>> (sagats-azala) eta <<Sagar-ustel>>. Gizon gizajoa guztiz makala ei zen, gaixotia ezertarako gauza ez zelako. Ostera, andrea, zaldikume antzeko indartsua.

Behin baten gizon antzeko andre honi akorda ei zitzaion bere senarrari gaiztokiaren bat egitea, eta bere senar gizajoari esaten ei zion.

- E... zu ez zara gizona! Halakoren baten sartuko zaitut belar otzara baten eta itsasora botako zaitut.

Egun horretatik aurrera gizon gizajoa beldurrez zebilen beti, ia berarekin zer gertatu behar zen.

Sasoi horretan ez zebilen inor kaletik. Oso kale ilunak ziren, herrian zehar zeuden petrolioizko farolek katu zaharren begizuriak baino argi gutxiago egiten zuten eta. Halere, *sakalamanteka*<sup>1</sup> sarri ibiltzen zen gure kaleetatik ume lapurretan. Eta honelako esakuneak entzunda nor ausartuko zen kaletik ibiltzen?

Denbora aldi haretako ohitura izaten zen goizetik jaiki eta laster kopatxo bat edo bi patxar edo aguardiente gogorra edatea.

Horrela kopatxo bat edo bi patxar hartu ezkerro, hau zen barau-haustea kalera irten baino lehen.

Eta ikusten denez ipuin honetako gizon itxurako andre honek, egun haretako goizaldean behar den baino lehenago patxar gehiago hartu zuen, eta belarretako otzara handi bat hartu eta mahai ganean ipini zuen eta haserre gorrian gizon makal gizajoari esan zion:

- Zu nire gizona otzara honetara sartu eta jarri.

Gizon gaixotia otzara barruan sartu eta jarri zen.

Orduan, andreak bere indar guztiekin bere buru gainera altxatu zuen, eta ezertxo ez balitz bezala bere karguarekin, goizaldeko orduetan joan zen isil-isilik, bere gizona barruan sartuta eraman zuen otzara, itsasora botatzera.

Andre ankerra bere kargarekin heldu zenean *Torronteru* ingurura, hartu zuen Portura doazen eskailerak eta hor <<Txilloneko>> kolarrera heldu zenean kolarre handi honetatik ile kirikidun ikaragarri zuen itsaso-txakur handi bat auzika irten zitzaion. <<Karabinero>> izena zuen itsaso-txakurrak eta beronen jabea <<Lazarotxu>> ei zen.

Txakurrak bere toki hartatik, bere orkorozko usainarekin igarri zuen andre gaiztoaren otzaran zeramala gizona, eta hasi zen auzika eta auzika. Eta honetariko baten andreaki oratu zion hankatik haginkadak egiten ziola. Honetan, atso ankerra estutu zen eta deiadarka hasi zen.

- Galdua naiz, txakur honek jan behar nau.

Orduan otzara barruan aurkitzen zen gizona gizajoak bere burua otzaratik atera zuen gogorki txakurrari esan ziolarik:

- Txakurra,joan hadi hortik!

Txakur horrek gizonaren ahotsa entzun zuenerako, bat-batean, ihes egin zuen, marras-marraska, "*Allitxu eta Morgononeko*" mailetatik behera. Andre ankerra, orduan, konturatu zen bere burukeri gaiztoaz eta esan zuen:

- Jaunak, ni honek salbatu nau. Gizona, gizona da otzaran sartuta egon da ere.

Eta egi behar haundi hau ikusirik, bira eman eta bere gizona maitasunez etxera eraman zuen bihotzez esanik.

- Hemendik aurrera, gizon maitea, orain arte baino hobeto zainduko zaitut.

(1) Umeak ikartzeko Bermeon sortutako irudimenezko pertsonaia.

**Anton Erkoreka**

Etnografia de Bermeo, 3

Leyendas, cuentos y supersticiones

Doniene Bilduma

Bilbao, 2000